



«Giro polita» izan dute Txirrin Txarran jaian

TOLOSA ▶ 30 aisialdi taldetan banaturik, 500 lagun baino gehiago bildu dira asteburuan

«**ARRAKASTA**» ▶ Antolatzaileak «gustura» azaldu dira bi eguneko egitarauak emandakoarekin ▶ 2



Txirrin Txarran egunean bildu zirenak, Zerkausion. I. AZPILIKUETA



IBON AZPILIKUETA

Aizkora apustua, 'Urki'-rentzat izan da

ASTEASU ▶ Orendaindarrak hartu zuen aurre Alkizalete I.aren aurkako desafioan, Usabarri pilotalekuan, 1.000 ikusle ingururen aurrean ▶ 6

LIZARTZA ▶

«Salaketa ofiziala» erabiliz epaituko dute Garikoitz Etxeberria

Frantzian eginiko delituak ere epaitzeko eskaera egin dute ▶ 6

TOLOSA ▶

TAKeKo 3 talde Espainiako Txapelketan

Euskadikoan postu onak lortu dituzte ▶ 3

LEITZA ▶

Miguel Angel Pinillos drogen inguruan ariko da etzi

Institutuko liburutegian emango du hitzaldia, gurasoei zuzenduta ▶ 7

ALEJANDRO CANTERO ▶ MENDI INGENIARIA

«Basoen kopurua handitzea funtsezkoa izango da»

Irundarrak hitzaldia emango du gaur, Naturaldiaren baitan

I. TERRADILLOS

Atzo hasi ziren Naturaldia naturari buruzko jardunaldiak. Aldaketa klimatikoak izango da hizketagai hilaren 27ra arte punta-puntako hizlariek. Atzo aldaketa klimatikoari buruz dakigunaz eta ez dakigunaz aritu zen Luis Balairon

Ruiz. Gaurkoan, 20:00etatik aurrera Alejandro Cantero (Irun, 1966) IKT enpresako mendi ingeniaria ariko da Josep Peñuelas CSICeko ikerketa irakaslearekin batera, kausak eta ekosistemen jardunbideari dakartzion eraginenguz inguruan, Kultur Etxean.

Aldaketa klimatikoak pil-pile-

an dagoen gaia da azkenaldian. Gaurko hitzaldian zeren inguruan ariko zarete zehazki?

Gipuzkoako ekosistemetan aldaketa honek izango duen eraginaz ariko naiz. Batez ere, basoek jasango duten aldaketa aztertuko dut, beti ere, kontuan hartuta, hipotesiek diote-

na bete egingo dela. Horretaz gain, aldaketa horiek ekiditeko egin beharrekoa ere azalduko dut.

Zer egin behar da, bada, aldaketa klimatikoak ekiditeko? Basoak handitzea da kontua. Gero eta karbono gehiago izatea, sortzea, lortu behar da, eta hori gure mendietan gero eta baso gehiago izaten baditugu ortuko dugu. Honetan esan behar da, askotan jakin gabe, mesede handia egin dutela gure baserritarrek.

Aldaketa klimatikoarekin oso beltz jarri dute etorkizuna. Beldurtzeko modukoa al da?

Hori klimatologoek aztertzen dute, baina pentsa, askotan biharko eguraldia iragartzeko ere zailtasunak baditugu, nola jakin zer gertatuko den hurrengo mendeetan? Badirudi, urtaroen datuak ikusita ez daudela hainbeste aldaketa. Nik ez nuke esango beldurtzeko moduko egoera batean gaudenik, hori aurrerago ikusiko da.

Aldaketa horiek nabaritzeko denbora asko itxaron behar al dugu?

Beti ere, hipotesiak aintzat hartuta, badirudi, mende honetan nabariturik dela, 1etik 4 gradu-ra arteko igoera. ◀

GIZARTEA ▶

Txirrin Txarran festan «oso giro ona izan da»

30 talde desberdinetan banaturik, 500 lagun baino gehiago izan dira Tolosan

IÑIGO TERRADILLOS

Bizi Alai Donostiako Elizbarrutiko astialdi taldeen federazioak antolatuta, Txirrin Txarran festa egin zuten larunbatean eta herenegun. Larunbatean iganderako prestaketak egin ostean, afaria eta solasaldia egin zuten 2 aditu eta 100 gazte inguruk ingurumenari buruz, eta ondoren «ederki» igaro zuten Kultur Etxean antolatuta zuten kontzertuan.

Herenegun izan zen Txirrin Txarran festa handia. Eguna Plaza Zaharrean eginiko harrearekin hasi zuten. Hala, goizean jolasak eta tailerrak egin zituzten, eta elkarrekin Jurasiko Parkean bazkaldu ostean, kalejiran abiatu ziren Zerkausiraino, bertan dantzaldia egiteko. 30 talde inguruk hartu dute parte bi egunetan, 500 lagun baino gehiagok, eta «zoragarri» irten dela guztia azaldu dute antolatzaileek.



Zerkausiko dantzaldian «oso gustura» aritu ziren gazteak. IBON AZPLIKUETA

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun! ▶

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetekin
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44
Santa Mari plaza, 1 behea

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KINOLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GUTUN@K ▶

Hizkuntz gatazka (I)

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hizkuntza Politikarako sailburordeak, 2007ko martxoaren 23an, Donostiako Kursaallean adierazi zuten: «hizkuntz politika ez dugu hizkuntz eskubideen terrenoan planteatu behar, dugun legeriaren eta plangintzaren esparruan baizik». Hori da azken 25 urteetan egiten ari garena eta emaitza eskasak izan dira. Azken 21 urteetan 154.000 ikasle euskaldundu gabe utzi ditu eskolak, ETB-1en egungo audientzia % 4ra ez da iristen, administrazioak gaztelaniaz egiten du lan eta euskaraz ez dakiten langile eta politi-

kari berriak sartzen ari dira. Arlo horietan ahalegin handienak egin baldin badira ere, legeak eta neurriak urriegiak izan dira euskararen erabile-
rak aurrera egin zezan. Menpeko hizkuntz politika hori ez da herritarren borondatean oinarritu, beste bide batetik doa (urte askoan «A ereduaren aldeko alderdiak» %40 izanik, familien %8k aukeratzen du eredu hori sema-alabentzat), eta ez da gai joera negatibo kezkagarriak neutralizatzeko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2005 - 2009 egitasmoak honako joera negatiboak zehazten ditu: euskararen erabilera urria eta gutziz irregularra da, euskaldunak bakarrik hartuz gero, euskara-

ren erabilerak behera egin du, 1982 inguruko urteetan ez bezala, erdal elebarkartasunaren aldeko diskurtsoa ari da orain zabaltzen, 1982an Euskararen Legea onartu zenean lorturiko adostasunarekin alderatzen badugu gaurkoa, bistakoa dirudi atzera egin dugula, ezin da euskararen geroa bermatuztat eman (38, 64, 26, eta 33 orrialdeak). 25 urteko hizkuntz politikaren ondoren, argi dago, EAJren menpeko hizkuntz politikak ez duela balio Euskal Herria euskalduntzeko.

EAJ, 30 urte hauetan, saiatu da hizkuntz normalkuntza kontzeptua edukiz hustutzen bere menpeko hizkuntz politika zuritzeko. Hizkuntza normalkuntza eta elebitasuna kontra-

riari dira. Hizkuntza normalkuntza esan nahi du minorizatu izan den hizkuntzak erabilera-esparru guztiak berreskuratzeko dituela, eta hanpatua egon denak atzera egin behar duela (Aracil). Egoera minorizatuari buelta ematea, alegia, EAJk, ordea, Euskal Herriaren independentzia baztertea eta Espainia-Frantziaren mende egotea onartu duen bezala, hizkuntzaren alorrean ere, Euskal Herri euskalduna baztertea eta bi erdaren mende elebitasunean bizitzea onartu du. EAJren helburua ez da Euskal Herri euskalduna, ez da euskal hitzun komunitatea berrosatzea Euskal Herri osoan erreparazio historikoaren bitartek.

Baina elebitasun sozial egonkorrik ez dago. Ordezkatze prozesuak daude eta hizkuntz gatazka horien amaieran hizkuntza bat nagusitzen da. Menpeko hizkuntza politikak proposatzen duen elebitasun sozial orekatu eta iraunkorren adibiderik ez da mundu osoan. Mito bat da. Elebitasuna ez da normalkuntza menperakuntza baizik. Hori da, hain zuzen ere, urte guzti hauetan EAJk Euskal Herriari egin dion iruzurra: menpeko hizkuntz politika PSOerekin hitzartzea eta euskara saltzea Lakuako gobernuaren kudeaketa politikoa ziurtatzearen truke. Horixe da bi alderdi hauek egin duten manipulazte politikoa.

INAXIO AGIRRE (AUB) ▶ TOLOSA

AISIA ▶

Sanjoenetaz hitz egiteko bilerara deitu dute gaurko

Jai batzordeak bilerara deitu du gaurko. Hau 19:00etan izango da Kultur Etxean. Hitzketaldiko gaia sanjoenak izango dira.

POLITIKA ▶

Gaur aurkeztuko dute EAKo zerrendaburua

Gaur 11:30ean, Kultur Etxean Eusko Alkartasunak Tolosako alkatetzarako zerrendaburua aurkeztuko du.

ERAKUSKETA ▶

Lanbroan ikusgai Garmendiaren artelanak

Lanbroa tabernan ikusgai dira Jon Mikel Garmendiaren lanak. Irurar honek pintura abstraktoa egiten du.

BATELAK ▶

Espainiakorako hiru talde sailkatu dira

Asteburuan jokaturiko Euskadiko Txapelketan bi eta hiru postuetan geratu ondoren Espainiako Txapelketan dira

ESTI EZEIZA

Asteburu honetan jokatu dute Sestao inguruko uretan Euskadiko batel ligaxka. Bertan lehiatu ziren Tolosaldeko Arraun Klubeko lau ontzi. Lehendabiziko postua inork eskuratu ez bazuen ere, nesken taldeak Espainiako Txapelketarako sailkatzea lortu zuen bigarren postua erdietsi ondoren. Mutiletan berriz, kadeteak eta infantilak hirugarren geratu ziren Euskadikoan. Hori dela eta, gainontzeko txapelketen emaitzak jakin ondoren talde hauek ere sailkatzea lortu dute. Espainiako Txapelketa asteburu honetan jokatu dute Mueñan (Vigo, Galizia).
Saio hona egin bazuten ere



Senior jubenil neskek. HITZA

TAKeokoez zapore gazi-gozaorekin itzuli ziren Sestaotik. Izan ere, maila absolutuko neskei lehendabiziko kalea egokitu zitzaizen, eta haizea ateratzean itsasoa aldatu zen, honek eragina izan zuelarik korritzeko garaian.

SAILKAPENA ▶

Senior neskek.

1. Ondarroa
2. Tolosaldea
3. Portugalete

Jubenil neskek.

1. Orio
2. Zumaia
3. Elantxobe

Kadete mutilak.

1. Santurtzi
2. Orio
3. Tolosaldea

Infantil mutilak.

1. Arkote
2. Orio
3. Tolosaldea

FUTBOLA ▶

Gero eta zailago du Tolosak maila mantentzea

ERREDAKZIOA

Horren beharrezkoak dituen hiru puntuak ezin izan zituen eskuratu Tolosak larunbateko partidari. 1-2 galdu zuen Amorebietako aurka jokatutako norgehiagokan. Honen ondoren gero eta zailagoa dauka mailan mantentzea.

Lehendabiziko zatian Bizkaitarrak hasi ziren irabazten Aitorren gol batekin. Baina minutu batzuk berandago, falta bat medio, gola sartzea lortu zuen Uribek. Bigarren zatian oso ongi jokatu zuten Amorebietakoek, eta partida amaitzeko 15 minutu falta zirenean garaipeneko gola sartu zuten bizkaitarrek. Joan den asteburuko emaitzen ondoren 17. da Tolosa, eta larunbat honetan Lagun onak taldea izango dute aurkari.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info
Tel.: 943 65 56 95

urteurrena ▶

III. urteurrena
GARIKOITZ EZKERGAIN GALARZA

Maitasunak behin batu gintuenok banatzeko indarrak ez du ezerk, ezta heriotzak ere.
Hire lagunak

2007-04-24

AZPIEGITURAK ▶



Asteasu eta Zizurkil arteko bidegorria hitzartuta

I. Garcia ▶ Asteasuko eta Zizurkilgo udalek bi herrien arteko bidegorria egitea hitzartu zuten atzo Foru Aldundiarekin. Sinaketa ekitaldian izan ziren Iñaki Amenabar Asteasuko alkatea,

Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea eta Luis Mari Oyarbide Garapen Iraunkorreko foru diputatua —argazkiaren erdian—. Urte bukaerarako bidegorria amaitzea espero dute. I. GARCIA

POLITIKA ▶



Ezker abertzalearen elkarretaratzeak

Erredakzioa ▶ Anoetako eta Adunako ezker abertzaleak elkarretaratzeak egin zituzten larunbatean, sinadura bilketan «beren babesa agertu dutenei» eskerrak emanez eta «proze-

suaren alde» daudela eta ezker abertzaleak hauteskundeetan egon behar duela aldarrikatuz. Anoetan, konzentrazioa egin aurretik batzarra ere egin zuten 45 lagun inguruk. HITZA

ZIZURKIL ▶ V. ANTZERKI ASTEA



Atzoko emanaldiaren une bat. I. GARCIA

‘Ahatetxo itsusia’, lehen protagonista

Andersen ipuin idazleari buruzko obra ikusi ahal izan zuten atzo haurrek

IMANOL GARCIA

*Andersen*en *ahatetxo itsusia* obrarekin hasi zen atzo Zizurkilgo V. Antzerki Astea. Larunbatera arte egunero antzezlan bat ikusteko aukera izango da. Atzokoan, herriko hiru ikastetxeetako 4 eta 11 urte bitarteko ikasleek izan zuten aukera hori Atxulondo kultur etxean.

Lan horretan Andersen aktore lanetan aritu nahi duen bidaiaria da. Baina aktore baino, berak duen irudimenarekin, idazle izateko esaten diote. Ho-

rrela, ikus-entzuleek Andersen obra ezagunetako en parte batzuk jaso ahal izan zituzten.

Gazteen txanda

Gaurko txanda gazteentzako izango da. Kasu honetan *Bota patsa!* lana ikusteko aukera izango dute Zizurkilgo eta Villabonako 14 eta 16 urte bitarteko ikasleek Gurea aretoan, 11:00etan. Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrak antzetzten dute obra.

ANOETA ▶

Alkartasunako hiru bikote aurrera mahai jokoetan

Alkartasuna biltokiko hiru bikotek egin dute aurrera Gipuzkoako jubilatuen arteko mahai jokoetan: Ignacio Amonarriz eta Laureano de Arriba tutean, Bernardo Borrego eta Juan Gorduño dominoan eta Angel Brillo eta Fidel Benito token. Bihar Ordizian jokatu beharko dute hiru bikoteek hurrengo kanporaketa.

ANOETA ▶

Herriko artisten bilera herriko festetarako

Herriko festetan herriko artisten lanak eta eskulanetako ikastaroko partaideenak ikusgai jarri nahi dituzte, festa batzordetik adierazi dutenez. Beraz, festa batzordeak deialdia luzatzen du erakusketan parte hartzeko eta bihar, 18:00etan, gai horren inguruan udaletxean antolatu duten bilerara azaltzeko.

hirukide
gainberri
jesuitinak
eskolapioak

www.hirukide.org
Tel.: 943 670 311

hitza
argazki
lehiaketa

bidali oporretako
argazkiak!

ALEGIA ▶ GIZARTEA



Langaurre parkean lasaitasuna eta natura dira nabarmentzekoak: akanpadak, hamaiketakoak eta babarrun jateak ere egin izan dira. J. GOIKOETXEA

Langaurre parkean ez da lasaitasuna izan asteburu honetan

Eguna pasatzera joan zirenek adierazi dutenez, «30eko talde bat han zegoen, musika oso ozen jarrita, egun osoan»

NEREA URBIZU

Alegiatik Aldabarako bidean dagoen Langaurre parkean igandean, beste edozein aste-burutan bezala, igandea pasatzera joan zen jendea. Herenegun, baina, beste igandetan ez dagoena ikusi ahal izan zuten: 30 laguneko talde bat, «musika izugarritzko bolumen altuan jarrita», bertaratu zirenen esanetan.

Eguna igarotzera joan zirenak, aparkalekura iritsi eta «autotik jaitsi baino lehen, musika oso bolumen altuan entzun genuen». HITZARI bertaratu ziren batzuk esan bezala, «gazte batzuek zeuden Langaurren, etxola moduko hartan, autoak uzteko aparkalekutik urrutira dagoen zonan, hain zuzen».

Oso zarata handia entzuten zela ikusi zuten, «gehiiegizko» zen: musika ikaztegietan eta Orendainen ere entzuten zen». «Musika nondik zetorren ikusita, hara hurbildu ginen eta han jende talde bat zegoen: dantzari, nahiko egoera kaskarrean batzuk, eta musika oso-oso altu».

Honen aurrean, haurrekin parkera igo zirenek ertzainei deitu zieten, eta 11:30ak aldera agertu ziren: «Musika jaitsi zu-

ten haiek horrela eskatuta, baina handik ordu erdira-edo berriro musika hasieran bezala jarri zuten». 13:00etan bueltan hurbildu ziren ertzainak, bigarren aldiz deitu baitzuten kexatu egin zirenek. «Berdin gertatu zen: musika jaisteko esan, eta jaitsi, baina handik gutxira igo». Lasaitasun bila joan baziren ere, ez zuten aurkitu.

Udala eta Ertzaintza

Olatz Amundarain alkateak HITZARI argitu bezala, «udaletxean inork ez du baimenik eskatu. Besterik gabe; kasu hau salbuespen bat izan da. Gazte batzuek hara joatea okurrutu zaie eta bertan egin dute parranda. Ez dut uste horrelako asmoa duen jendea baimenak eskatzen ibiliko denik. Honelako gauzak kontrolatzea zaila da: dena dela, ez zen gehiagora joan gauza, eta ez da batere

ohikoa halakorik gertatzea bertan».

Ertzaintzak jasotako bi deiak baieztatu ditu; «patruila bat joan zen, eta musika jaisteko eskatu eta jaitsi egin zuten, besterik gabe». Baina egunpasa joan zirenek ikusi zuten: «nahiz eta ertzainak joan, nahiz zutena egin zuten».

Langaurren lasaitasuna

Langaurre parkea atsedenera da, lasaitasunaz gozatzeko gunea. Bertan jateko mahai dotoreak ditu, haurrentzako parkeko bat, eta autoen edo errepidearen arriskurik ez dago. Komunak, itzalgunek, iturriak, parrilak, aparkalekuak eta babesgune txiki bat dauka ere. Hemendik ibilaldi eder batzuk burutu daitezke.

Alegiatik Aldabarako bidea hartu behar da, eta handik kilometro eta erdi ingurura hartu behar den bidegurutzetako bidearekin errepidea hartu behar da.

Langaurren duela 25 bat urte babarrun jateak egiten hasi ziren, AHT proiektuaren aurkako akanpadak egin izan dira, eta San Juan eskolako Zuhaitz Eguna ospatzen du urtero. Jendea igandean lasaitasun bila hurbiltzen da.

ERTZAINEI DEIA

Zarataren aurrean, haurrekin igo zirenek ertzainei deitu zieten, eta 11:30ak aldera azaldu ziren

PILOTA ▶

HITZA Txapelketan gaur kadeteak hasiko dira

Bidarian jokatuko dituzte 19:00etan

N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketari hasiera eman zaio, eskualdeko hainbat pilotalekuetan norgehiagokak izanik.

Gaur, asteartero bezala, kadeteen partidak izango dira Bidarian, eta kasu honetan lehenengo pilotariak eskualdeko Karrera eta Otaegi izango

dira, 19:00etan. Ondoren, Insausti eta Jauregi ariko dira.

Galarraga eta Bizintxo eta Irastorza eta Matxain ariko dira. Bukatzeko, Bilbao-Erriopeko Mujika, eta bukatzeko Urteaga-Jauregi.

Hurrengo asteburuko partidak astean zehar argitaratuko ditu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK.

ALTZO ▶

Nor bere burua motibatzearen garrantziaz bihar

Altzoko Udalak antolatutako kultur ekitaldien baitako azkenekoa bihar izango da. Kasu honetan, *Nor bere burua motibatzearen garrantziaz* ariko dira. Aurretik finkaturiko xedeei begira motibazioari eusteko gaitasuna garatzeko helburua izango du hitzaldiak. 17:00etan izango da Lizarbeloko ezker aldeko gelan. Txotxongiloekin hasi zen egitaraua bihar bukatuko da, hitzaldi interesgarri honekin.

ALEGIA ▶

Pakita Barreroren lanak jubilatuenetan

Alegiko jubilatuen tabernak hilabetero erakusketa ezberdinak jartzen ditu. Margolanak ez direnean, argazkiak, eta bestetan, margolana eta eskulturaren arteko nahasketak. Kasu honetan, margo-lanak ditugu, koadroak. Donostiako Pakita Barrerok egin ditu maiatzaren 13ra bitarte ikusgai daudenak. Egutero, asteartetik igandera bitarte izango dira, tabernaren ordutegi berean.

ALEGIA ▶ KULTURA

Hondakinen inguruko erakusketa

Ezaguna den Tolosaldeko Mankomunitateko erakusketa Alegian izango da: *Hondakinak, amesgaiztorik ez!*, hain zuzen ere. Gaurtik hasita 3 astez, maiatzaren 12ra arte izango da Inaxio Begiristain kultur etxean. Astean zehar, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsalde 15:00etatik 21:00etara bitarte bisita daiteke. Larunbatetan, berriz, goizez, 10:30etik 13:00etara izango da.



Hondakinekin egindakoak. E. E.

KAZETARIAK (Erref.: 07-KAZB)

Berria egunkariak 3 kazetari behar ditu maiatzean eta ekainean aritzeko.

Eskaintzen da:

- Lanean segituan hasia.
- Prestakuntza espezifikoko jasotzea.

Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea, edo kazetaritza lanetan esperientzia izatea.

Kontuan hartuko da:

- Quark X Press programa erabiltzen jakitea

Bidali curriculumak gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora, erreferentzia zehazturik, apirilaren 27a baino lehen.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Garikoitz Etxeberria «salaketa ofiziala» erabiliz epaituko dute

Frantzian egindako delituak ere epaitzeko eskaera egin dio Entzutegi Nazionalako fiskalak Juan del Olmo epaileari

ASIER IMAZ

Madrilgo (Espainia) Entzutegi Nazionalako fiskaltzak, Garikoitz Etxeberria lizartzarra eta Asier Larrinaga bilbotarraren aurkako akusazioa handitzeko eskaera egin du, EFE agentzia espainiarrek zabalduzako informazioaren arabera. Fiskalak idatziz eskatu omen dio Juan del Olmo epaileari, Frantziako lurraldean egindako ustezko delituak ere Entzutegi Nazionalan epaitzea. Hau posible egiten duen mekanismoa «salaketa ofiziala» izenez ezagutzen da. Honek Frantzian egindako delituengatik Espainian epaitzeko aukera ematen du. Horrela egiten badute, «salaketa ofizialaren» mekanismoa erabiltzen duten lehen aldia izango da.

Larrinaga eta Etxeberria iragan urtarilaren 9an, Azkainen (Lapurdi) atxilotu zituen Frantziako Poliziak. Muret-Seysee-seko espetxean izan zituzten ondoren Paueko Auzitegiak Espainiaratzeko eskaera onartu



Garikoitz Etxeberria lizartzarra eta Asier Larrinaga bilbotarra. HITZA

zuen arte, defentsaren helegitea atzera botaz. Martxoaren 16ean utzi zituzten Espainiako poliziaren esku. Frantziatik espainiaratzeko «poliziak galdeketa ilegala eta baita mehatxuak ere» egin zizkietela salatu zuten. Adibidez, «bidaia motza ala geldialdiekin bidaia luzea nahi zuten galdetu zieten». Entzutegi Nazionalera eramatean Juan del Olmoren aurrean deklaratzeari uko egin zioten. Honek iazko abenduaren 23an Zornotzan aurkituta-

ko 240 kilo lehegailuen inguruan egin zien galdeketa, hau baitzen euren aurka Espainian inputatzen zen delitu bakarra.

Fiskalaren eskaerarekin, Etxeberriari Frantzian ustez egindako hiru delitu epaituko dizkiete. Talde armatuaren partaide izatea, agiriak faltuztea eta azkenik, soinean arma eramatea. Delitu horiek Espainian epaitzeko helburuarekin, atxilotu zituzteneko polizia eta epaile agiriak eskatu dizkio fiskalak Frantziari.

AIZKORA APUSTUA ▶



Urki lanak amaitzen eta Alkizalete I.a atseden hartzen. I. AZPILIKUETA

Jexumari Ormaetxeak irabazi zuen desafioa

«Nerbioak» eraginda 'Alkizalete I'.a ezinean ibili zen herenegun Asteasuko pilotalekuan

A. IMAZ

Jexumari Ormaetxea, *Urki-k* irabazi zuen herenegun Asteasun jokatu zen aizkora apustua eta ondorioz 3.000 euroko diru poltsa. Xabier Alkizalete, *Alkizalete I.a* ezin izan zuen lana amaitu. Usarrabi pilotalekuan 1.000 ikusle inguru elkartu ziren etxeko semearen eta irabazle atera zen orendaindarraren arteko lehia ikusteko.

Bi aizkolariek 14 kana-erdi-ko moztu behar zituzten, hauetatik 8 Urki emanak eta besteak Alkizalete I.arenak. Jexumari Ormaetxeak gogortasuna bilatu zuen egurretan eta bere hitzetan hori egon zen apustuaren gakoa:

«haseran nik ihes egin dut eta gero berriz bera aurreratu da. Baina egur gogorrenetan geratu egin da, hortxe egon da jokoa».

Desafioaren lehen kolpeetan biak parean ibili ziren. Haserako hiru enborretan segundu gutxiko abantaila zuen Urki, baina hurrengoan Xabier Alkizaletekin minutu erdiko aldea atera zion. Aurretik joan arren seigarrenaren arteko lehia ikusteko. Bi aizkolariek 14 kana-erdi-ko moztu behar zituzten, hauetatik 8 Urki emanak eta besteak Alkizalete I.arenak. Jexumari Ormaetxeak gogortasuna bilatu zuen egurretan eta bere hitzetan hori egon zen apustuaren gakoa:



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

*Erabaki al duzu
non jarraitu zure ikasketak?*

Etorri eta ezagutu MONDRAGON UNIBERTSITATEA bertatik, ATE IREKIEEN SAIOETAN

Goi Eskola Politeknikoa Arrasate-Mondragón	(2.zikloa) maiatzak 24 17:30 osteguna maiatzak 31 17:30 osteguna	Izena emateko: 943 71 21 92 bmarkaide@eps.mondragon.edu
ARETO NAGUSIA (Biteri Ikastetxe Nagusia)	ekainak 9 11:00 larunbata	
Goi Eskola Politeknikoa GOIERRI - ORDIZIA	APIRILAK 26 17:30 osteguna ARETO NAGUSIA	Izena emateko: 943 88 00 62 eurkia@goierrieskola.org
Enpresa Zientzien Fakultatea Oñati ARETO NAGUSIA	maiatzak 24 18:00 osteguna	Izena emateko: 943 71 80 09 cgarate@eteo.mondragon.edu
Enpresa Zientzien Fakultatea Bidassoa-Irun ARETO NAGUSIA	(2.zikloa) maiatzak 10 18:00 osteguna maiatzak 17 18:00 osteguna	Izena emateko: 943 63 91 29 aallur@bidassoa.eteo.mondragon.edu
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Eshoriatza ARETO NAGUSIA	apirilak 26 18:00 osteguna maiatzak 31 18:00 osteguna	Izena emateko: 943 71 41 57 sarrera@huhezi.mondragon.edu

www.mondragon.edu/etorkizuna

IBARRA ▶

Anjel Arbizuri omenaldia eta gero, garaipena

Ibarrak 4-3 garaitu zuen larunbatean Sestao. Unai Labaka izan zen partidako izarra hiru gol sartu ondoren. Etxean jokatu zen partiduan Anjel Arbizu bazkidearen memoria omendu zuten. Ekitaldi laburrean alargarari lore eskaintza egin zioten, ondoren minutu beteko isilunea, semeak ateratako oho-rezko saka eta taldeko kideek, denen sinadurak zituen balaio eskaini zieten familia-koei. Azkenik Anjel Arbizuren izenarekin Ibarrako kamiseta bat jarri zuten bere ohiko eserlekuan.

IBARRA ▶

KZgunean mintegia izango da ostiralean

Ostiral honetan *Euskal Herriko nekazal mundua* aztertu-ko dute KZgunean egingo den mintegian. Parte hartzeko izena eman beharko da aldeaz aurretik, *tutor.tolosa@kzgunea.net* edota 943 65 37 20 zenbakian. Ibarrako KZgunea arratsaldean egongo da zabalik eta mintegia berriz 17:00etatik 19:00etara eskainiko dute. Maiatzean eta ekainean zehar ere mintegi ezberdinak egingo dituztela jakinarazi dute antolotzaileek. Beti ere ordenagailua tarteko, gai ezberdinak jorratuko dituzte.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Miguel Angel Pinillos medikuak drogen inguruko hitzaldia emanen du etzi

Miguel Angel Pinillos Nafarroako Ospitaleko larrialdietako medikua da eta drogen ondorioz larrialdietara eramaten dituzten hainbat kasu ezagutzen ditu



Zenbait droga klase. HITZA

NAIARA GARZIA

Etzi, 17:30etik aurrera, drogen inguruko hitzaldia emanen du Miguel Angel Pinillosek, Nafarroako Ospitaleko Larrialdietako medikuak. Hitzaldia Amazabal Institututuko liburutegian izanen da, eta guraso eta profesio-

sionaleei zuzenduta dago, bereziki.

Hitzaldia Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuko Mankomunitateak, Drogaren Prebentzioko Programak eta Leitzako Amazabal Institututuko Gurasoen Elkarteak antolatuta dute, eta gurasoei

helarazi nahi dieten ideia esaldi honekin laburtu dute: «drogak ezagutu, ulertzeko eta zerbait egin ahal izateko». Guraso Elkartetik azaldu dutenez, «gehienbat prebentzioa landu nahi dugu eta krisialdi batean gurasoek nola jokatu behar duten ikasi. Honetaz gain, oste-

guneko hitzaldiaren beste helburu bat kalean zer dabilen ikastea da».

Besteak beste, hiru izango dira jorratuko dituzten gaiak: drogen, nerabezaroaren eta droga-menpekotasunaren inguruko ideia orokorrak, erabilgarritasun ezberdina duten drogen inguruko informazioa eta azkenik, prebentzioa, bai familian, bai eskolan ere.

Drogen inguruko ideia orokorreki dagokienez, drogaren definizioa azaldu ondoren, nerabezaroaren aroak eta buruaren heldutasuna ere azalduko ditu Miguel Angel Pinillosek, eta besteak beste, kontsumo erak eta menpekotasun motak azalduko ditu.

Drogek izan ditzaketen erabilera ezberdinei dagokienez, gehienbat lau helburu hauek dituztenak aztertuko ditu: depresioa eragiten dutenak, droga suspargarriak, droga aluzinogenoak eta lapurreta eta bortxaketarako drogak.

Azkenik, prebentzioaren alorrean bi galdera hauen inguruan mintzatuko da: «zer egin dezakegu eta zer ekidin behar dugu gurasoek?» eta «hezi al daiteke prebentzioan?».

LEITZA ▶

Barriola eta Bengoetxea Txapelketan aurrera

Abel Barriolak erraz irabazi zuen arren, Bengoetxea VI.ak gehiago sufritu zuen

N. GARZIA

Larunbateko bi norgehiagokak jokatu ondoren, bai Barriola bai Bengoetxea VI.a final-laurdenetara pasatu dira. Barriolak erraz irabazi zuen Peñagarikanoren aurka, 11 tanto atera baitzizkion. Bengoetxea VI.a, aldir, larriago ibili zen eta Leizari hiru tanto atera zitkion.

Barriolak eta Peñagarikanok Zarautzen jokatu zuten norgehiagokan leitzarrak hasieratik aurkariari aurrea hartu zion, eta hasiera-hasieratik markagailua bere alde jarri zuen, 9-2koarekin. Markagailua mementu batean 10-5 egon zen arren, Barriolak jarraian tanto ugari egin zituen, 17-6an jarri. Peñagarikanok beste lau tanto jarraian egin zituen arren, 11 tantorekin amaitu zuen partida.

Bengoetxea VI.a

Bengoetxea VI.ak, berriz, gehiago sufritu zuen, eta hasiera batean markagailua bere alde jarri bazuen ere, ez zuen tarte handirik ireki. Norghegiagokak aurrera egin ahala, Leizaren nekea nabarmenagoa egin zen eta leitzarrak tartea areagotu egin zuen, markagailua 12-18an jarri. Halere, Oinatz Bengoetxeak irabazi arren, amaieran Leiza hurbildu egin zitzaion, bien arteko tartea murriztu, eta 22-19 emaitzarekin amaitu zuten.

MIGUEL ANGEL PINILLOS ▶ NAFARROAKO OSPITALEKO LARRIALDIETAKO MEDIKUA

«Drogak ez direla desagertuko onartu behar dugu eta haiekin bizitzen ikasi»

Miguel Angel Pinillosek (Barañain, 1955) urteak daramatza Nafarroako Ospitaleko Larrialdietan lan egiten eta etzi hitzaldia emanen du Institutuan.

Larrialdietara joaten direnek zer droga kontsumitzen dituzte gehienbat?

Guk gehienbat alkohola ikusten dugu baina gero eta jende gazteagoan. Gainera kokainak eta cannabisak gora egin dutela ikusten dugu.

Gazte bat denbora askoan droga daiteke, gurasoek honetaz konturatu gabe?

Droga kontsumitzailea bada ez da garai batean bazterturik ze-

goen zokoratua. Gaur egun aste guztian lan egiten dute eta asteburuan drogatu egiten dira. Baina gurasoek askotan ez dugu egia onartu nahi.

Gaur egun, zure semea drogaturiko ez den ziurtasunik izan al dezakezu?

Ziurtasuna ezin duzu inoiz izan, baina baloreak eman diezazkiokezu drogan ez erortzeko. Familia hezkuntza oinarrikoa da eta hori galdu egin dugu. Semeek ez diegu denborarik eman eta eskola eta horrelakoen esku utzi ditugu.

Prebentzio aldetik zer egin daiteke?

Umeak maitatu egin behar dira eta balore batzuk erakutsi. Aisialdian leku ikusgarritara joatea ez dela beharrezkoa ikusi behar dute, haiekin egon behar da, besterik gabe. Azkenik arau batzuk erakutsi behar zaizkie, muga batzuk.

Drogak gizartearen zati bat dira, beraz.

Drogak ez direla desagertuko onartu behar dugu eta haiekin bizitzen ikasi. Izen ezberdinak izanen dituzte, eta itxura ezberdinak, baina hor jarraituko dute. Gurasoek jakin behar dute seme-alabei drogak eskaini egingo dizkietela. Seme-

alaba indartsuak egin behar ditugu, autoestimatuarekin. Drogak ez erabiltzeari ere esanahi baikor bat eman behar diegu. ▶

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Pello Urquiolak argitaratu berri duen liburua zeresan handia sortu du. Zer duzu esateko honen inguruan? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia. ▶

iragarki laburrak ▶

LANA

Garbiketa, sukaldea.

Jangeletarako, eskoletarako:

943 44 48 66.

Gidariak . Erakunde

publikoetarako. 943 44 48 66.

Haurzaintza . Albizturen 2

haur zaintzeko pertsona behar

da autoarekin. 662 01 92 62

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur

lehorra salgai. Etxera

entregatzen da. 615 75 57 62.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ibarra. Bizi Nahi erretiratuen elkartearen 25. urtemuga dela eta, Izaskunera erromeria egingo dute maiatzaren 18an: hamaiketakoa, toka lehiaketa, meza, bazkaria eta dantzaldia. Autobusa ere jarriko dute. Izen-ematea, elkartean.
Tolosa. Klima aldaketaren kausak eta ekosistemaren jardunbideari dakarkion eraginak gaiz ariko dira Josep Peñuelas CSICeko ikerketako irakaslea eta Alejandro Cantero IKTKo mendi ingeniaria Kultur Etxean 20:00etan.
 Aurkezlea: Kiko Alvarez.
Villabona. Gazteentzat aproposa den *Bota Patsa* eskainiko dute Villabonako Gurea antzokian 11:00etan Iker Galarza eta Joseba Usabiaga antzezle tolosarrek. Zizurkilgo V. Antzerki Astearen barruan, Kutxa kultur ekintzen eskutik.

ZINEMA

Alegia. Hilabete osoan Pakita Barreroren margolanak ikusgai jubilatuen tabernan, asteartetik igandera bitarte.
Tolosa. Julio Pardo pintore iruñearren margolak ikusgai daude Aranburu Jauregian.
Tolosa. Amaia eta Agurtzane Nuñez anoetarrek bere koadroak ikusgai jarri dituzte Saikin tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Goizueta. Apeztevea, L.M. Kale Nagusia. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hirzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. Tolosaldeko ahotza (errepikapena).
 20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
 21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.
 ▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lehiaketa, azken txanpan

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Etzira arte irakurleek Aste Santuko argazkiak bidaltzeko aukera izango duzue; maiatzaren 1ean argitaratuko ditugu irabazleak



'SEGURTASUNA LANEAN?' ▶

Isabel Lakuntza.
 Isabel Lakuntza irakurleak ere parte hartu nahi izan du lehiaketan, argazki berezi hau bidalita. «Tunisiako Sidi Bou Said herrian ateratakooa da», dio. Gizon bat ikus dezakegu inongo segurtasunik gabe aldamio baten gainean.

MAHDIA ▶

Iban Zendoia.

Leurik bisitatueneratariko izan da gure irakurleen artean Tunisia. Horren adibide da Iban Zendoia azpeitiarra«Tunisian, Mahdiako Medina zaratatsutik alden du eta kale bakartian. Gu oporretan eta hangoek, berriz, eguneroko bizitzan jarraitu behar», dio Ibanek.

COVADONGA ▶

Ainhoa Telleria.

Gertuago geratu direnak ere izan dira. Esaterako, Ainhoa Telleria, Asturias aldera bidaia egin Aste Santuan Asturiasen izan ginen. Eguraldi zoragarria egin zuen eta paisaia ederrak ikusi ahal izan genituen. Argazki hau Covadongako laku bat da», azaldu digu Ainhoak.



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Janire Goñi Balerdi
 (Amezketeta). Gaur urtebete. Muxu asko familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Saioa eta Oihane (Amezketeta). Gaur 2 urte. Zonionak eta muxuak bi sorgintxoei familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko eztejak, ezkontzak, jaioberriak...